



ORIOK OUDALA

AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2010eko urriaren 5a, asteazkena

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:00 **BUKATZEKO ORDUA:** 19:10

BERTARATUAK:

Alkatea

Jon Redondo Lertxundi

Zinegotziak

Noemi Ostolaza Arkauz, Martxiel Genova Solaberrieta, Angel del Hoyo Bravo, Karmele Belasko Garro, Jose M. Goiburu Manzisidor, Leire Zinkunegi Lopez De Gereño, Iñaki Koldo Iturain Azpiroz, Juan Vicente Lasa Karrikaburu eta Jesus Jose Juan Rodriguez Pousa.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Iñaki Garcia Aranbarri zinegotziak (EB-B/Aralar) ez du parte hartzen, herritik kanpo dagoelako.

Aztergai-zerrenda irakurtzen hasi aurretik, Joseba Goiburu zinegotziak (talde mistoa) hartzen du hitza eta alkateari galdetzen dio ea zergatik eskatu zaien nortasun-agiria udalbatzarrera agertu nahi izan duten pertsonen. Alkateak erantzuten dio, esanez ez dakiela zergatik izan den hori, berak ez baitio inor identifikatzeko agindurik eman udaltzaingoari.

Bestalde, Joseba Goiburu zinegotziak proposatzen die udalbatzarkideei beste gai bat sartzea aztergai-zerrendaz kanpo, gaztetxearen aldeko aldarrikapena egiteari buruzkoa. Alkateak erantzuten dio, esanez gai hori urriaren 26an egitekoa den udalbatzarraren aztergai-zerrendan sartuko duela, behin Gipuzkoako Itsasertzetako



Zerbitzu Probintzialak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak egin behar dituzten txostenak jaso eta gero.

AZTERGAI ZERRENDA

1. Onartzea, egoki bada, Udalaren 2009ko Aurrekontuaren Kontu Nagusia.
2. Behin betikoz onartzea, egoki bada, Orioko Arau Subsidiarioetako 20. sektorearen —Aizperro— kontzertazio-hitzarmena.
3. Behin betikoz onartzea, egoki bada, Orioko Kasko Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren 3. zenbakidun jarduera urbanistikoaren kontzertazio-hitzarmena.
4. Onartzea, egoki bada, baldintza administratiboen orria, Orioko Abaromendi kalean dagoen merkataritzako lokal bat besterentzeko, lehiaketa publiko bidez.

1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN 2009KO AURREKONTUAREN KONTU NAGUSIA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Indarrean dagoen araudian ezarritakoa betez, jendaurrean jarri dira, batetik, 2009ko ekitaldiko urteko kontuak eta kontabilitateko egoera orriak, eta, bestetik, 2009ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa, bere agiriekin, eta Kontuen Batzorde Bereziaren txostena; agiri horiek 15 laneguneko epean egon behar zuten jendaurrean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita, herritarrei aukera emateko aztertzeko eta, epe horren barruan, beren eragozpen edo oharrak idatziz aurkezteko.

Iragarkia 2010eko uztailaren 7ko GAOn (127. zenbakia) argitaratu zen eta, beraz, jendaurreko epea eta oharrak aurkezteko epea 2010eko uztailaren 8an hasi zen eta uztailaren 26an bukatu.

Epe horren barruan ez zen inolako eragozpen edo oharririk aurkeztu.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, jendaurreko informazio aldiaren emaitza ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Iturain (EB-B/Aralar), Lasa (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; abstentzioak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa) eta Zinkunegi (talde mistoa), guztira **HIRU ABSTENTZIO BOTO**]:



ONARTZEA Udalaren 2009ko Aurrekontuaren Kontu Nagusia, aurrekontu propioak eta Orio Garatzen SL udal sozietate publikoaren aurrekontuak osatzen dutena.

2.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 20. SEKTOREAREN —AIZPERRO— KONTZERTAZIO-HITZARMENA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Orioko Udalbatzarrak, legezko gehiengo absolutuaren aldeko botoarekin, honako erabakiak hartu zituen 2010eko uztailaren 6an egindako ezohiko bilkuran:

1.- **LEHEN ONARPENA EMATEA** Orioko Udal Planeamendurako Arau Subsidiarioetako 20. sektorearen —Aizperro— kontzertazio-hitzarmenaren aldaketari.

2.- Kontzertazio-hitzarmena **JENDAURREAN JARTZEA** hogeitun laneguneko epeaz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia jarrita, alegazioak aurkezteko aukera emateko.

Kontzertazio-hitzarmena jendaurrean jartzeko iragarkia 2010eko abuztuaren 18ko GAOn (157. zenbakian) argitaratu zen eta, beraz, jendaurreko epea hau izan zen: 2010eko abuztuaren 19tik irailaren 10era.

Jendaurreko epe horren barruan **EZ DA AURKEZTU** inolako erreklamazio edo alegaziorik eta, beraz, udal zerbitzu teknikoek udalbatzarrari proposatzen diote kontzertazio-hitzarmen hori behin betikoz onartzea.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta jendaurreko aldiaren emaitza ikusita eta Gertutasuna, Giza Balioak eta Herri Antolaketa batzorde informatzaileak 2010eko irailaren 30ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAR BAIEZKO BOTO**]:

1.- **BEHIN BETIKOZ ONARTZEA** Orioko Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 20. sektoreari —Aizperro— dagokion kontzertazio-hitzarmena, 2010eko abuztuaren 18ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (157. zenbakian) argitaratutako iragarkiaren termino beretan.

2.- **AHALMENA EMATEA** Jon Redondo Lertxundi alkateari kontzertazio-hitzarmen hori sinatzeko Orioko Udalaren izenean.

3.- **JAKINARAZTEA** erabaki hauek interesatu guztiei, aurkez ditzaketen lege errekurtsoen berri emanez.

Erabaki honek bukaera ematen dio bide administratiboari. Horren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke, administrazioarekiko auzi errekurtsoren



aurretik, hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren hurrengotik kontaktzen hasita; edo, bestela, zuzenean aurka egin daiteke Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Justiziako Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Salaren aurrean, bi hilabeteko epearen barruan, jakinarazten den egunaren hurrengotik kontaktzen hasita; horrez gain, bestelako errekurtsioak ere aurkez daitezke.

3.- BEHIN BETIKOZ ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO KASKO HISTORIKOA BIRGAITZEKO PLAN BEREZIAREN 3. ZENBAKIDUN JARDUERA URBANISTIKOAREN KONTZERTAZIO-HITZARMENA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Kontzertazio-hitzarmena LURRA SL entitate merkantilak aurkeztu du Udalaren aurrean.

Udalak, 2010eko abuztuaren 12ko 396/2010 zenbakidun alkate-dekretuaren bidez, honako hau erabaki zuen:

1.- **LEHEN ONARPENA EMATEA** LURRA SL entitate merkantilak aurkeztu duen Orioko Kasko Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren 3. jarduera urbanistikoaren kontzertazio-hitzarmenari.

2.- Kontzertazio-hitzarmena **JENDAURREAN JARTZEA** hogeitun laneguneko epeaz, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia jarrita, alegazioak aurkezteko aukera emateko.

Kontzertazio-hitzarmena jendaurrean jartzeko iragarkia 2010eko abuztuaren 18ko GAO n (157. zenbakian) argitaratu zen eta, beraz, jendaurreko epea hau izan zen: 2010eko abuztuaren 19tik irailaren 10era.

Jendaurreko epe horren barruan **EZ DA AURKEZTU** inolako erreklamazio edo alegaziorik eta, beraz, udal zerbitzu teknikoek udalbatzarrari proposatzen diote kontzertazio-hitzarmen hori behin betikoz onartzea.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta jendaurreko aldiaren emaitza ikusita eta Gertutasuna, Giza Balioak eta Herri Antolaketa batzorde informatzaileak 2010eko irailaren 30ean emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAR BAIEZKO BOTO**]:

1.- **BEHIN BETIKOZ ONARTZEA** LURRA SL entitate merkantilak aurkeztu duen Orioko Kasko Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren 3. jarduera urbanistikoaren kontzertazio-hitzarmena, 2010eko abuztuaren 18ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (157. zenbakian) argitaratutako iragarkiaren termino beretan.

2.- **AHALMENA EMATEA** Jon Redondo Lertxundi alkateari kontzertazio-hitzarmen hori sinatzeko Orioko Udalaren izenean.



3.- **JAKINARAZTEA** erabaki hauek interesatu guztiei, aurkez ditzaketen lege errekurtsoen berri emanez.

Erabaki honek bukaera ematen dio bide administratiboari. Horren aurka aukerako berraztertze errekurtsua aurkez daiteke, administrazioarekiko auzi errekurtsuoen aurretik, hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren hurrengotik kontatzen hasita; edo, bestela, zuzenean aurka egin daiteke Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Justiziako Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzien Salaren aurrean, bi hilabeteko epearen barruan, jakinarazten den egunaren hurrengotik kontatzen hasita; horrez gain, bestelako errekurtsuak ere aurkez daitezke.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, BALDINTZA ADMINISTRATIBOEN ORRIA, ORIOKO ABAROMENDI KALEAN DAGOEN MERKATARITZAKO LOKAL BAT BESTERENTZEKO, LEHIAKETA PUBLIKO BIDEZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Besterenduko den lokala honako hau da: Orioko Abaromendi 38, 1 helbidea daukana.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Gertutasuna, Giza Balioak eta Hirigintza batzorde informatzaileak 2010eko irailaren 30ean egindako bilkuran emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Iturain (EB-B/Aralar), Lasa (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa) eta Zinkunegi (talde mistoa), guztira **HIRU KONTRAKO BOTO**]:

ONARTZEA baldintza administratibo partikularren orria, Orioko Abaromendi kalean dagoen merkataritzako lokal bat (Abaromendi 38, 1) besterentzeko, lehiaketa publiko bidez.

Emandako botoa azaltzeko, Joseba Goiburu zinegotziak (talde mistoa) hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa eman duela ez dagoelako ados Abaromendi kaleko merkataritzako lokal guztiak saltzearekin; bere ustez, Udalak gutxienez merkataritzako lokal horietako bi hartu behar lituzke beretzat, inguru horretako bizilagunen beharrei erantzuteko.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako inork hitza hartu ez duenez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,